

<http://ikas.eus/spip.php?article1660>



# Janari dendan - antzerkia

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Antzerkia - Kattalin Sallaberryren Antzerkiak -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 21a

---

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziak

erreserbatuak

---



### Janari dendan - antzerkia kattalin Sallaberryren antzerkia

Obra hau copyrightaz geriztua da. Baimenik gabe kopiatzea, zabaltzea edo berrekoiztea debekatua da.  
©Ikas, euskal pedagogia zerbitzua, 2010.

**Eroslea:** Egun on, anderea.

**Saltzailea:** Bai zuri ere! Oinez etorri zira?

**Eroslea:** Ba araz! Horrelako aroaz baliatu behar da kirola pixka baten egiteko! Ez dea hala?

**Saltzailea:** Bai segurki! Zer berri zuen auzoan?

**Eroslea:** Egia erran ez naiz sobera jakinean azken egun hauetako euriekin ez baitut jende handirik mintzatu.  
Bakoitza bere etxean kokatua egona da!

**Saltzailea:** Egia duzu! Niri ere jendea pirka-pirka jin zait.

**Eroslea:** Bon! Ez bainaiz kalakan aritzera jina, hara zer behar dudan : kafe pakete bat, olio pinta bat, kilo bat sagar, dozena bat arroltze, gasna horren laurdena. Iduritzen zait zerbait ahanzten dudala.

**Saltzailea:** Harrazu denbora, ez dugu presarik.

**Eroslea:** Eta bai! Irina! Hori gabe xahu naiz! Arratsalde honetan matahamiak egin beharrak ditut Pettanen urtebetetze kari.

**Saltzailea:** Zenbat urte egiten du?

**Eroslea:** Zazpi!

**Saltzailea:** Ui,ui,ui,ui! Denbora nola iragaiten den

**Eroslea:** Bai eta gu harekin! Funtsean, osagarria duguno, ez dugu zinkurinka aritu behar!  
Zenbat zor dizut?

**Saltzailea:** 26,95 euro, plazer baduzu.

**Eroslea:** Horra. Orain haia-haia etxerat joan behar dut, orea egin eta oren batez bederen pausatzera utzi behar baita. Egun on eta ondoko egunak arte!

**Saltzailea:** Krakada on eta laster arte!

**Jokalariak:** Saltzailea eta eroslea

**Autorea:** Kattalin Sallaberry

**Argitaratzailea:** Ikas

**Argitaratze data:** 2010/12/21

**Maila:** 3. ziklotik goiti